

2017KO UZTAILAREN 10EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zortzirik direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2017KO EKAINAREN 12KO BILKURAREN AKTA).
- 2.- AUREKONTU OROKORRAREN 2017/3 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.
- 3.- GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIORA ATXIKITZEKO ERABAKIA.
- 4.- BAKE EPAILE TITULAR ETA ORDEZKOA AUKERATZEKO PROZEDURA BIDERATZEARI BURUZKO ERABAKIA.
- 5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 6.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).
Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).
Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).
Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).
Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).
Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Juan José Gorrochategui Larrea Jna. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2017KO EKAINAREN 12KO BILKURAREN AKTA).

Alkateak, 2017ko ekainaren 12ko bilkuren aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta.

2.- AURREKONTU OROKORRAREN 2017/3 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena eta ziurtagiria aztertu dira. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
6	INBERTSIO ERREALAK	265.073,73
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		265.073,73

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
6 (SARRERAK)	INBERTSIO ERREALAK BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ	265.073,73
FINANTZAKETA GUZTIRA		265.073,73

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

3.- GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIORA ATXIKITZEKO ERABAKIA.

Alkateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazioaren azalpena egiten du.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak *Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruzko Foru Dekretua* onartu du, bere bigarren artikuluan zehazten duen moduan ondorengo helburuekin:

- a) *Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioak indartu daitezen.*
- b) *Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.*
- c) *Laguntza eta lankidetzak teknikorako bideak hedatzea Espazioan dauden erakundeek betebeharrak arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.*
- d) *Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren diru laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea.*
- e) *Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen*

instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.

Udal honen nahia Espazio horren parte izatea izanik Osoko Batzarrari proposatzen zaio atxikimen adierazpen hau onartzea.

Halaber, Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian zehaztu moduan, atxikimen honek bere gain konpromiso hartzea eskatzen dio.

Gaia aztertuta, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko lau zinegotzien eta EH Bildu taldeko etorritako lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, zera erabakitzen du:

1. Zegamako Udala Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea.
2. Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak beregain hartzea.
 - a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.
 - b) Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.
 - c) Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.
 - d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduera, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.
 - e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzazko aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
 - f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.
 - g) Espazioaren aurrekontuak ezagutzea eta, behar bada, gai horren

inguruan eztabaidatzea organo edo egitura eskudunen bitartez.

h) Partaidetza alorrean Foru Aldundiak burutuko dituen laguntza tekniko eta lankidetzako prozesuetan udalei eta tokiko erakundeei laguntza ematea, arazoak edo gai irekiak behar bezala identifikatzeko, erregelamendu nahiz ordenantza-tipoak eta proposatutako gida metodologikoak sustatzeko, eta herritarren partaidetzako tokiko politikak hobetzera bideratutako Espazioaren beste edozein ekimen bultzatzeko.

i) Espazioa dinamizatzea egungo egituren bidez, eta foro teknikoak koordinatzea, hala behar bada.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari erabaki honen berri ematea.

4.- BAKE EPAILE TITULAR ETA ORDEZKOA AUKERATZEKO PROZEDURA BIDERATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Udalerrri honetako Bake Epailera den Joseba Olaziregi Albizuren lau urtetarako izendapena bukatzeaz dagoenez, Euskal Autonomia Elkarteke Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzatik, Udal Osoko Bilkurak Bake Epailera titular eta Ordezko Bake-Epailera berriak izenda ditzala eskatzen da.

Zentzu honetan, espedientean jasotakoaren arabera Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Aukeraketa horri hasiera emango dion iragarkia bideratzea eta argitaratzea.

Bigarrena.- Iragarkia ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hilabete bateko epea zabaltzen da interesa dutenek eta legeak jarritako baldintzak betetzen dituztenek, idatziz Alkatetza honi eska dezaioten.

Hirugarrena.- Udaletxeko idazkaritzan espedientea aztertu daiteke eta beste datuen berri ere jaso, hala nola, baldintzak, karguaren iraupena, ordainsariak, etab.

Laugarrena.- Eskaerak aurkezteko epea amaiturik, Osoko Bilkurak eskatu dutenen artean, Bake-Epailera titularra eta ordezkoa aukeratuko ditu, beti ere ezarritako legeko betebeharrak betetzen badituzte, eskaerarik ez balego, Korporazioaren Osoko Bilkurak modu askean aukeratuko ditu prozeduraren baldintza berdinekin eta Lehen Instanzietako Epaileri jakinaraziko dio erabakia.

5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 02/0617 erabakia, ekainaren 7koa, Aitxuri Guraso Elkarteari "kirol festa" antolatze baimena emanez.
- 03/0617 erabakia, ekainaren 7koa, zenbait ordainketen erlazioa onartuz, guztira 958,39 eurokoa.
- 04/0617 erabakia, ekainaren 16koa, Kultur Etxeko fotokopiagailu berria renting bidez eskuratuz.
- 05/0617 erabakia, ekainaren 19koa, Orkatz abesbatzari, ikasturte bukaerako festa egitea baimenduz.
- 06/0617 erabakia, ekainaren 23koa, Euzkitze Zahar baserriaren sailetan txerrientzako ukulua eraikitze baimena emanez.
- 07/0617 erabakia, ekainaren 23koa, 3851 fakturen erlazioa onartuz, guztira 58.175,46 eurokoa.
- 08/0617 erabakia, ekainaren 23koa, zenbait ordainketen erlazioa onartuz.
- 09/0617 erabakia, ekainaren 23koa, 3852 fakturen erlazioa onartuz, guztira 1.914,62 eurokoa.
- 010/0617 erabakia, ekainaren 28koa, zenbait ordainketen erlazioa onartuz.
- 011/0617 erabakia, ekainaren 28koa, Udal langileen nominen ordainketa-erlazioa onartuz.
- 012/0617 erabakia, ekainaren 29koa, zenbait pentsio eta laguntzen ordainketa erlazioa onartuz.
- 013/0617 erabakia, ekainaren 29koa, zenbait pentsio eta laguntzen ordainketa erlazioa onartuz.
- 014/0617 erabakia, ekainaren 30koa, 3954 fakturen erlazioa onartuz, guztira 20.486,99 eurokoa.
- 01/0717 erabakia, uztailaren 4koa, Zegamako orientazio ibilbide iraunkorra egiteko Eusko jaurlaritzari laguntza eskaera eginez.
- 02/0717 erabakia, uztailaren 4koa, zenbait fakturen ordainketa erlazioa onartuz.
- 03/0717 erabakia, uztailaren 6koa, zenbait fakturen ordainketa erlazioa onartuz.
- 04/0717 erabakia, uztailaren 7koa, Jesus M^a Larrea Aranari barne lanak egiteko baimena emanez.
- 05/0717 erabakia, uztailaren 7koa, 4035 fakturen erlazioa onartuz, guztira 33.522,17 eurokoa.

6.- GALDE ERANTZUNAK.

- Maria Luisa Gorrochategui Irastorza zinegotziak (EH Bildu), Murgibek aldizkaria bidali duela jakinarazten du, etxeetara jakinarazteko moduz eztabaidatuz. Zentzu honetan, bilkurakideak, etxeetara egiten diren paperezko jakinarazpenak, poliki, beste bide batzuen bitartez ordezkatzeari buruz hitz egiten dute.
- Olaia Elorza Iñarra zinegotziak (EH Bildu), Korrikako argazkia eta bertsoa jaso duela adierazten du. Zentzu horretan marko batean jartzea proposatzen da, udaletxeko aretoan kokatzea adostuz.
- Bilkurakideak, desfibriladoreen ikastaroei buruz hitz egiten dute.
-

Aztertze gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortzirak eta berrogei minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa

jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2017kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2017.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO